

Jubilatu Etxeko taberna lehiaketa publikora aterako da

■ Kontratuak 5 urtetarako da, beste 5era luzatzeko aukerarekin ■ Euskaraz hitz egiteko adina jakitea beharrezkoa da.

ONGINTZA Patronatuak Jubilatutako Etxeko taberna lehiaketa publikora aterako du, orain daudenek uzteko asmoa dutelako. Dagoeneko, taberna hartzekotan, baldintzak zein diren kaleratua dago eta Ongintzan jaso lezake nahi duenak. Orain daudenek urtarilean utziko dute.

BALDINTZAK

1-Kontratuak bost urterakoa behar du. Bi aldeak ados badaude, luzatzeko aukera dago.
2-Taberna hartzeagatik ez da dirurik ordaindu behar, baina, derrigorrezkoa da han bertan bizitzea. Ongintzak 40.000 Pta emango ditu garbitasunagatik.
3-Plan bat aurkeztu behar da.

ZER BALORATUKO DA?

Lehiaketan sartu nahi duenak euskaraz hitz egiten moldatu beharko du. Udaleko euskara teknikariek erabakiko dute moldatzen den edo ez. Gero, elkarriketa egin zaio eta hor bi gauza hartuko dira kontuan: 1) aurkeztu duen plana eta 2) esperientzia. □

SANTA ZEZILIA KONTZERTUAK



Txistulari Banda eta Kantuz Abesbatza elkarrekin kantuan, kontzertuaren azken zatian.

Parrokiko korua mezetan eta Musika Banda udaletxeko arkupetan

■ Koruak 11:00etako mezan kantatuko du; Banda, berriz, 13:00ean hasiko da.
■ Atzo Sadiusterrin jende asko bildu zen Txistulari Banda eta Kantuz Abesbatza entzuteko. Bukaeran txistulari eta koruak elkarrekin kantatu zuten.

PELOTA

J. Zabala - Jauregik ETB-DV torneoko partidua, gaur

■ Elizondon 11:00etan, Baleztena-Huarteren aurka.
■ Eli Lasa eta Amaia Martinez aurrera *paleta goman*.



Eli Lasa eta Amaia Martinez, eskubian, aiarren kontra jojatuta.

JON Zabalak, gaur jokatu du Jauregirekin batera ETB-DV pelota sariko final laurdenetako partidua.

Jonen esanetan, Baleztena-Huarte "aurkari oso gogorak dira, baina jokatu arte ezin esan zer pasako dan".

PALETA GOMAN FINALERDIETARA

Eli Lasa eta Amaia Martinez Gipuzkoako Txapelketako finalerdietan daude. Atzo jokatu zuten finalaurdena: Aiako Itxaso eta Etxabe 30-15 utzituzten. □

3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Baskonia - Hernani

■ Hernaniarrak 13garren daude 15 punturekin eta basauritarrek 16garren, 12rekin ■ 17:00etan.

ESKUBALDIA

San Adrian - Hernani

■ Hernaniko neskek 5garren doaz, San Adrianekoen aurretik ■ 12:30etan.

DONOSTIAKO MARATOIA

7-8 hernaniar aterako dira

■ 42.195 m. egin beharko dituzte, 11:00etan aterata.



UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598
Faxa 943.552.067
20120 HERNANI



GasHernani

Zure etxerako energia naturala
GAS NATURALA

Gudarien Enparantza z/g, Tfnoa.: 943 33 09 28
20120 HERNANI

**URMAR
BRIKOLAJEA**



Oztaran auzoa, 13

Tel 943 552616-Faxa 943 552412
20130 URNIETA (Gipuzkoa)

Skoda Octavia. Bizitza osoa



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik* (11.990,19 euro*)
*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

AEK-REN KONTRAKO AUTO JUDIZIALA

AEK-k asanblada konbokatu du egoerari erantzun bateratua emateko

■ Herriko talde, elkarte eta euskarekin lotutako jendeari egin die deia ■ Asteartean da, Sandiusterrin 20:00etan ■ Ostiralean euskararen 'babes eguna' antolatuko du.

AZKEN astean zer gertatu den eta zer etorri litekeen ikusita, Hernaniko AEK-k batzarra konbokatu du astarterako. Bi gauza egingo dira batzarrean: orain artean gertatu dena azaldu eta aurrera begira zer egin pentsatu. AEKren iritziz, kolpea ez da bakarrik bere kontrakoa, eta erantzuna ere euskarekin kezkatutako denek elkarrekin eman beharrekoa da.

"BABES EGUNA"

AEK-k batzarrerako bere proposamena prestatuko du: datorren ostiralean euskararen aldeko *babes eguna* antolatzeari; ostiralerako, Juan Mari Larrarte egun horretan joango baita Madrilera deklaratzerako. Kanpaina osoak *AEK aurrera, euskara aurrera* izango du lema.

'KORRIKA TXIKIA'

Ostiral goizeko hamarretan -



AEKko kideak datorren astearteko asanblada iragartzen.

Juan Mari deklaratzera sartzeko orduan- kontzentrazioa egingo da udaletxeko plazan. 20:00etan, eta ondoren korrika txikia: manifestazioa korrika, lekuko batekin, barruan Juan Mari berak idatzitako mezua duela.

IKASTOLEKIN

Ostiraleko babes egunaren helburua da euskararen inguruan dabilenak berean zerbait egitea. Horrela, AEK ikaste-txeekin hitz egingo du hezkuntzak zer egin lezakeen ikusteko. □

EMAKUME ERASOTUEN NAZIOAREKO EGUNA ATZO

Erasoan bizi diren emakumeentzat urjentziatzeko neurriak eskatu dituzte

150 lagun inguru izan ziren manifestazioan. Neurri sozial, ekomomikoak eta asistentzia beharrezkoak ikusten ditu Gipuzkoako Emakume Koordinadorak



150 lagun inguruk euripean egin zuen atzo manifestazioa.

EMAKUMEEN aurka ematen den eraso ez da huts-hutsen erasotzailearen ardura bakarrik; horixe zen atzo manifestazioan irakurritako komunikatuaren puntuetako bat. Gipuzkoako Emakume Koordinadora emakumeek bizi duten egoera "eredu sozio-ekonomikoaren ondorio dela diote."

PLAN ESTRATEGIKOA

Egoerari konponbidea bilatzeko Koordinadorak plan estrategiko bat eskatu du eraso egoeraren arrazoiak desagertzeko: menpekotasun ekonomikoa, balore sexitak... □

HITZ BITAN



Hernaniko mahaitenislariak atzo, kiroldegian jokatzen.

MAHAI TENISA

Atzo arratsaldean hasi ziren eskolartekoak mahai tenisean jokatzen. Aurtengoan, eskolartekoek federatuen partiduen egun berdinetan jokatuko dute. Polikiroldegiko 2garren pistan jokatzen dira partidu hauek, bertan jarritako 7-8 mahaitan.

JUBILATUAK

Laguariara joateko zozketa, astelehenean 17:00etan. Hernaniko jubilatuek datorren larunbatean Errioxa aldera joateko plana egingo dute. Joateko lekua baino jende gehiago dagoenean, ordea, zozketaz erabakitzen da zein joan. Hori bihar egingo da. Bestalde, aurreko batean Bilbon izanak dira: Guggenheim, Arte Ederretako museoa, Aeroportu berria, Areetan... bazterrak ondo ikusi eta "txoratuta" etorri omen dira.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Jaione Tejedor Eibarren da gaur. Hernaniko neska gazteak Eibar Hiria konpetizioa jokatuko du, Eibarko Klubarekin. Talde honek, Jaione bera tartean zela, Gasteizko Beti Aurrera torneo irabazi zuen joan den astean.

AGENDA

ERAKUSKETA

Alberto Elosegiren argazkiak. Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki erakusketa Zumardi tabernan.

ZINEA

El profesor Chiflado II Biterin, 17:00-19:30

MUSIKA

Egan taldea Oialumen, 20:00etan.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
 ► Udaltzaingoa: 943 333288
 ► DYA: 943 464622
 ► Autobusak: 943 556662
 ► Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

► Egunez: Aizpuru Latxunbe berri, 11 ☎ 943 553582
 ► Gaeuz: De Miguel Lasarte. Nagusia, 32 ☎ 943 361556



SANTA BARBARA

PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
 Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOEZ ALDATZEN DITUGU

- Peugeot 405 Diesela nahiz Gasolina
- Peugeot 205 Diesela
- Citroen C-15 Diesel batzuk 380.000 pztatik
- Ford Courier Diesela-Lagundutako direkzioa
- Opel Astra 'Caravan' Diesela 675.000 pzta
- Opel Astra Diesela 875.000 pzta
- Suzuki 'Todo Terreno' 375.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...

IRAGARKI MERKEAK

► Neska bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943.557190



MARI FERARRANDEGIA

Nagusia 36 Orkolaga 17
 943 55 04 89 943 55 27 41
 HERNANI

Asun Esnal Bitxigintza

Bitxien konpontketak egiten ditugu

Larramendi 3 HERNANI 20120 Tifa. 943-33 04 78